**Espediente zk./**Nº Expediente: 2020SDBD0027
**Gaia/**Asunto: **LAN EGITEN DUTEN PERTSONEI UDAN ADINGABEEN ZAINTZARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA**
**Eskatzailea/**Solicitante: SDBD
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

## DIRULAGUNTZAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

### LAN EGITEN DUTEN PERTSONEI UDAN ADINGABEEN ZAINTZARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA

## BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES

### AYUDAS A LAS PERSONAS QUE TRABAJAN PARA HACER FRENTE AL CUIDADO DE MENORES EN VERANO

| **1.- Dirulaguntzaren xedea** | **1.- Objeto de la subvención** |
|---|---|
| Oinarri hauen xedea da arautzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko deklaratutako osasun-alarmak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko norgehiagokarik gabeko dirulaguntza bat, zehazki, Errenterian bizi diren eta lan egiten duten pertsonei laguntzeko udan adingabeen zaintzari aurre egiten. | Estas bases tienen por objeto establecer las Bases Reguladoras de aplicación a la concesión de subvenciones, en la modalidad de concurrencia no competitiva, para paliar los efectos económicos provocados por la alarma sanitaria declarada para hacer frente a la pandemia del COVID-19 para el cuidado de menores durante el periodo estival entre personas trabajadoras de Errenteria. |
| Dirulaguntza izango da funts publikoak jartzea udan 14 urtetik beherakoak zaintzeko norbait kontratatu duten edo kontratatuko duten pertsonek jasandako gastu arrunten zati bati aurre egiteko kontraprestazio zuzenik gabe eta deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera. Uda garaia izango da ekainaren 15etik irailaren 15erakoa. | Se entenderá por subvención la disposición dineraria de fondos públicos sin contraprestación directa para sufragar parte de los gastos ordinarios soportados por aquellas personas que hayan contratado o vayan a contratar a personas para el cuidado de menores de 14 años durante el periodo estival, concretamente desde el 15 de junio y hasta el 15 de septiembre, en los términos previstos en esta convocatoria. |
| **2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua** | **2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.** |
| Deialdi honetan dirulaguntzetara guztira bideratuko dira 30.000 €, 2020ko aurrekontukoaren partida honen kontura: | El importe total destinado a la presente subvención es de 30.000€ con cargo a la partida presupuestaria del 2020 siguiente: |
| 1 1330.480.02.231.50 2020 | |
| Nolanahi ere, eskaeren kopurua eta zenbatekoa bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Errenteriako Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera. | No obstante, si el número y cuantía de solicitudes superara la cantidad destinada, el Ayuntamiento de Errenteria podrá ampliar el citado importe, en función de su disponibilidad presupuestaria. |

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrean, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. | El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas,ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada. |
| **3.- Onuradunak** | **3.- Personas beneficiarias** |
| Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute besteren edo norberaren konturako langileak diren eta 14 urtetik beherakoen bat beren kargura izan eta 4. puntuko baldintzak betetzen dituztela adingabe horiek zaintzeko pertsona bat kontratatu behar izan dutenek. | Podrán resultar beneficiarias de la prevista en esta convocatoria aquellas personas trabajadoras por cuenta propia o ajena que, teniendo menores de 14 años a su cargo y cumpliendo los requisitos establecidos en el punto 4º, se hayan visto en la necesidad de contratar a una persona para cuidado de dichos menores. |
| Deialdi honen ondorioetarako, honela ulertuko dira kontzeptu hauek: | A los efectos de esta convocatoria: |
| - Familia: etxebizitza edo ostatu berean bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatutako familia-unitatea, lotura bada ezkontza bidezkoa edo parekoa, adopziokoa, edo lehen mailako odolkidetasunekoa, edo familia-harrera edo adopzio aurreko harrerakoa edo tutoretzakoa. | - Se entenderá por familia: unidad familiar constituida por dos o más personas que viven juntas en una misma vivienda o alojamiento, cuando estén unidas entre sí por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga, por adopción, por consanguinidad hasta el primer grado, o por una relación de acogimiento familiar o preadoptivo o de tutela. |
| - Kargurako adingabe: 14 urtetik beherako seme-alabak eta tutoretzapeko, familia-harrera edo adopzio aurreko harrerako adingabeak. | - Se entenderá por menores a cargo: los hijos e hijas y los menores sometidos a tutela o acogimiento familiar o preadoptivo, menores de 14 años de edad. |
| - Guraso: familia-unitateko heldu bakoitza, familiaren erantzule juridiko eta ekonomiko dena. | - Se entenderá por progenitora: cada una de las personas adultas integrantes de la unidad familiar, responsables jurídica y económicamente de la misma. |
| **4.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.** | **4.- Requisitos de las personas beneficiarias** |
| Laguntza hauek eskatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira: | Las personas que deseen solicitar estas ayudas deberán cumplir los siguientes requisitos: |
| - Errenterian erroldatuta dagoen eta urtean 45.000 € edo gutxiagoko sarrera gordinak dituen familia bateko kide izatea. | - Formar parte de una familia empadronada en Errenteria, cuyos ingresos brutos anuales no superen los 45.000€. |
| - Adingabe bat edo gehiago izatea kargura. | - Tener uno o varios menores a cargo. |
| - Guraso guztiek norberaren edo besteren konturako jarduera ordaindua burutzea edo, | - Ejercer, todas las personas progenitoras, una actividad retribuida por cuenta ajena o propia |

| | |
|---|---|
| gutxienez, lanerako ezintasun osoat izatea. Lanaldiak izan beharko du jarduera burutzen den sektoreko lanaldi osoari dagokiona.<br>Familia ugaria, guraso bakarreko familien edo zaintza partekatuen kasuan, gurasoren batek % 40 arteko lanaldi-murrizketa eduki ahal izango du. | o tener, al menos, una incapacidad total para trabajar. La duración de la jornada laboral deberá ser la correspondiente a la jornada completa del sector en el que ejerzan su actividad.<br>En el caso de familias numerosas, monopartentales o custodias compartidas alguna de las personas progenitoras podrá encontrarse en situación de reducción de jornada de trabajo, en un porcentaje no superior al 40% de la jornada. |
| - Pertsona bat kontratatuta izatea adingabeak zaintzeko, ekainaren 15aren eta irailaren 15aren arteko eperen batean, kontratazio berria edo lehendik datorrena dela ere. | - Tener contratada a una persona para cuidado de los menores a su cargo, en algún período entre el 15 de junio y 15 de septiembre, ya sea una nueva contratación o una ya existente. |
| **5.- Bateraezintasunak** | **5.- Incompatibilidades de las beneficiarias** |
| Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu nazional edo internazionalek edo partikularrek helburu bererako emandakoekin. | La concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria es compatible con otras que pudieran obtenerse para la misma finalidad, que provengan de otras Administraciones Públicas, de otros entes públicos o privados, nacionales o internacionales o de particulares. |
| **6.- Diruz lagun daitezkeen gastuak** | **6.- Tipología de los gastos subvencionables** |
| Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu ahal izango dira etxean adingabeak zaintzeko pertsona bat kontratatzearen ondoriozko gastuak: soldata eta ordainsariak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko edo Gizarte Segurantzaren etxeko langileen erregimen bereziko kotizazioen gastuak edo familiei laguntzeko zerbitzuen enpresen bidez egindako gastuak. | A los efectos de esta convocatoria, se consideran gastos subvencionables los derivados de la contratación de una persona para cuidado en el domicilio de los menores a su cargo: sueldos y salarios, gastos derivados de la cotización en el Régimen General de la Seguridad Social o Régimen especial de empleados de hogar de la Seguridad Social o gastos realizados a través de empresas de servicios de asistencia a las familias. |
| Ez dira diruz lagunduko enplegatzailearen ezkontidea edo izatezko bikotekidea kontratatzeko gastuak. | No será subvencionable los gastos por la contratación del cónyuge o pareja de hecho de la persona empleadora. |
| **7.- Lagundutako jardueraren epea** | **7.- Ámbito temporal** |
| Diruz lagundu ahal izango dira urriaren 15era arte egindako gastuak, ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean indarrean egon diren lan-kontratuei | Serán subvencionables los gastos realizados hasta el 15 de octubre correspondientes a contratos laborales que hayan estado en vigor en algún período entre el |

| | |
|---|---|
| dagozkienak, kontratazioak edozer iraupen duela ere.<br>dira | 15 de junio y el 15 de septiembre, independientemente de la duración de la contratación. |
| **8.- Dirulaguntzaren zenbatekoa** | **8.- Cuantías de la subvención** |
| Laguntzaren zenbateko osoa, familiaren urteko errenta gordinaren, lanaldiaren eta kargurako adingabe kopuruaren arabera zehaztuko da, oinarrizko kuotatik abiatuta: | El importe total de la ayuda se determinará en función de la renta bruta anual de la familia, la jornada laboral y el número de menores a cargo a partir de la cuota básica: |

| Tartea/ Tramo | Urteko errenta gordina (gehienekoa) / Renta bruta anual (hasta) | Oinarrizko kuota hil / Cuota básica/mes |
|---|---|---|
| 1 | 20.000€ | 600€ |
| 2 | 30.000€ | 550€ |
| 3 | 35.000€ | 500€ |
| 4 | 40.000€ | 450€ |
| 5 | 45.000€ | 400€ |

| | |
|---|---|
| Oinarrizko kuota honi honako egokitzapenak egingo zaizkio, hurrenkera jarraituz: | A esta cuota básica se realizarán las siguientes adaptaciones en base a: |
| 1.- Kargurako adingabe batetik gora, adingabe bakoitzarengatik 30€ gehituko dira. | 1.- se incrementarán en 30 € por cada menor, a partir de un menor a cargo. |
| 2.- Lanaldi partzialen kasuan, zenbateko osoa proportzioan murriztuko da. | 2.- En el caso de jornadas parciales, el importe total se reducirá proporcionalmente. |
| **9.- Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea** | **9.- Presentación de solicitudes y documentación** |
| Eskabideak aurkeztu ahal izango dira: bide telematikoz Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, zein paperean, ZU! Zerbitzuan aurkeztuta.<br>Eskabide-eredua deialdi honen I. eranskinean dago jasota.<br>Eskabidearekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskatzaileek:<br>- Familiako kide guztien 2019ko errenta-aitorpenaren kopia<br>- Familia-liburuaren kopia.<br>- Lan egiten duten gurasoen enpresa-ziurtagiria, | Las solicitudes podrán presentarse bien por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria o en papel en el servicio ZU!.<br>El modelo de solicitud se recoge en el Anexo I de esta convocatoria.<br>Junto con la solicitud, las personas solicitantes deberán presentar la siguiente documentación:<br>- Copia de la declaración de la renta de 2019 de todos los miembros de la familia.<br>- Fotocopia del libro de familia. |

| | |
|---|---|
| lanaldiaren portzentajea ageri dela<br>- Kontratatutako pertsonarekin edo enpresa-zerbitzuarekin sinatutako kontratuaren kopia<br>- Zaintza partekatuen kasuan, hitzarmen arauemailea. | - Certificado de empresa de las personas progenitoras trabajadoras, con indicación del porcentaje de jornada.<br>- Copia del contrato suscrito con la persona contratada o con la empresa de servicios.<br>- En el caso de custodias compartidas el convenio regulador. |
| **10.- Eskabideak aurkezteko epea.** | **10.- Plazo de presentación de solicitudes.** |
| Eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da irailaren 15ean. | El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta el 15 de septiembre. |
| **11.- Laguntzak ematea** | **11.- Concesión de las ayudas** |
| Eskatutako eskaerak aurkezten diren hurrenkeraren arabera emango dira laguntzak. | Las ayudas se concederán por orden de presentación de la solicitud. |
| **12.- Dirulaguntza ordaintzea.** | **12.- Abono de la subvención.** |
| Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:<br>- % 40, dirulaguntza emateko ebazpena onartutakoan, bertan ezarritako epean<br>- % 60, zuriketa aurkeztutakoan<br>Eskaera aurkezteko unean zerbitzua amaitu bada eta frogagiriekin batera aurkezten bada, ebazpena eman ondoren % 100 ordainduko da. | El abono de la subvención se realizará en dos pagos:<br>- el 40%, tras la resolución de la concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma.<br>- el 60%, tras la presentación de la documentación justificativa.<br>Si en el momento de presentar la solicitud el servicio ha finalizado y se presenta junto a la documentación justificativa el abono tras la resolución será del 100%. |
| **13.- Zuriketa** | **13.- Presentación de documentación justificativa** |
| Dokumentazio hori eskabidearekin batera aurkeztu ez badute, bigarren ordainketa egin aurretik, onuradunek aurkeztu beharko dute egindako eta ordaindutako gastuen zuriketa, dokumentu hauekin:<br>- Ordaindutako nominak eta ordainketa horien egiaztagiriak<br>- Ordaindutako kotizazioen frogagiriak<br>- Zerbitzu-enpresaren fakturak edo ordainketen egiaztagiriak | Si no han presentado dicha documentación junto con la solicitud, antes del abono del 2º pago, las personas beneficiarias deberán presentar la documentación justificativa de los gastos efectivamente realizados y abonados:<br>- Nóminas abonadas y justificantes de dichos abonos.<br>- Resguardos de las cotizaciones abonadas<br>- Facturas de la empresa de servicios y los correspondientes justificantes de abono. |
| **14.- Egiaztagiriak aurkezteko epea** | **14.- Plazo de entrega de la documentación justificativa** |

| | |
|---|---|
| Justifikazio-agiriak eskabide telematikoarekin edo Zu! zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira, paperean, 2020ko urriaren 15era arte. | La documentación justificativa podrá entregarse junto con la solicitud telemática o en el ZU!, en formato papel hasta el 15 de octubre de 2020. |
| **15.- Dokumentazioa egiaztatzea eta behin-behineko ebazpenak berrikustea** | **15.- Comprobación de la documentación y revisión de las resoluciones provisionales** |
| Justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren, udal-zerbitzuek aztertutakoan ikusten bada deialdi honetan ezarritako laguntzak jasotzeko baldintzak edo betekizunak edo eskabidean alegatutako alderdiren bat partzialki edo osorik ez dela betetzen, bidegabe jasotako zenbatekoa zati batean edo osorik itzultzeko espedientea abiaraziko da.<br>Justifikazio-dokumentazioa horretarako ezarritako epean aurkezten ez bada, bidegabe jasotako zenbatekoa itzultzeko espedientea irekiko da. | Una vez entregada la documentación justificativa y analizada la misma por los servicios municipales, si se detectara el incumplimiento parcial o total de los requisitos o condiciones para percibir las ayudas establecidas en esta convocatoria o de alguno de los extremos alegados en la solicitud, se incoará el correspondiente expediente de reintegro parcial o total de la cantidad indebidamente percibida.<br>La no entrega de la documentación justificativa en el plazo habilitado al efecto dará lugar a la incoación del correspondiente expediente de reintegro de la cantidad indebidamente percibida. |
| **16.- Oinarri orokorrak** | **16.- Bases generales** |
| Oinarri espezifiko hauetan zehaztu gabekoari buruz, legokiokeenean, ERRENTERIAKO UDALAK 2020. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRETARA jo beharko da. | En lo no especificado en esta bases específicas, le serán de aplicación en lo que procediera las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020. |